

## ASKAPEN TEOLOGIA

(Fede-dotrinarako Kongregazioak emondako irakaspen bi dirala-ta)

1. Askapen teologia 1970 inguruan sortu zan Latin-Amerikan. Konzilio osteko urteak ziran. 1967 garrenekoa da Paulo VI. «Errien aurrerakuntza». 1968 garrenekoa Medellingo CELAM batzarra ta agiriak. 1972 garrenean agertu zan Gutierrez'en «Teologia de la liberacion» (bainia aurreko urteetako emoitza zala). Europan urte oreretan Teologi politikua asi zan sortzen (Metz, D. Sölle). Konzilioak be izan eban bere eragina: gogoratu askatasunari buruzko «Dignitatis humanae», eta «Gaudium et Spes» (Poza ta itzaropena), baina batez be Konzilioak barritasun eta aldaketa eta konpromiso arnasa zabaldu eban Eleizaren pentsamentuan eta egikeran. Alan be, beste mobimentuak lez, Askapen teologia be ez jako Konzilioari bakarrik zor. Esate baterako, Askapen teologia baino urte batzuk leenago «Jainko illaren teologiak» era batera edo bestera mundu onetako ekin-tzagaz geien baten bardintzen eban kristau mezua. Teologi onek zabaldu ebazan Bonhoeffer'en textoak. Mobimentu bakoitza eta Konzilioa bere eraginagaz mundu-mobimentu zabalagoaren atalak dira.

Latin-amerikako askapen teologoak Europako teologiaren eragina izan eben duda barik; baina euren teologi berezia berta-

ko gizarte egoereak eraginda sortu zan. Idazkietan eta liburuetan eratu ta gorpuztu aurretik, edo gorpuztuz batera, lekuko komunitade eta esperientziak izan ditu bere sorleku giroa. Asikerako eraginak aparte, teologi era au Latin-amerikako Eleizari dagokio geien baten.

Izenak dinoanez, teologi onck kristau mezua gizonaren askapenean jarten dau; gizona bere betea lortzeko eragozten datsoen loturetatik askatzean. Baina gizona gorputza eta gizartea



danez, gizarteko egiturak baldintzatzen dabe bere zoria. Orre-gaitik askapen teologiak aparteko eraz azpimarratzen ditu gizarteko politika, ekonomi eta kultura loturak. Askapen teologiak ez dau izan nai teologiaren atal uts bat: kristau mezua askapen norabide onen zentzuan ulertzen dau. Teologiaren ikuspegi barria da, kristau mezuaren ikuspegi barria.

Erromako Fede-dotrinarako Kongregazinoak irakaspen bi agertu ditu askapen teologiari buruz: 1984 garrenean «Askatasu-

naren Barria», 1986 garrenean «Kristau askatasuna eta askapena». Lehenengoak Askapen teologiaren desbideratze eta arriskuak artu ebazan gaitzat; bigarrenak kristau askatasun eta askapenaren elementurik beinenak argitan jarri gura ditu. Batasun bat eratzen dabe bien artean («Kristau askatasuna eta askapena», 2. zenb.).

Idazki onetan, askapen teologi arazoan diran punturik garrantzizkoenak ikutuko doguz.

## **2. Askapen teologiaren errazoi sendoa**

Askapen teologiaren egitura sendo ukazina onetan jarri leike: a) Ebangelioko alkar-maitasunean eta Ebangelioa askatzaille izatean. Argi uts dan kristau oinarri onetan datza beti askapen teologia. Oinarri au, jakina, olan, generikoa eta abstraktoa da. Askapen teologiaren zeregina ain zuzen be oinarri au, printzipio au, konkreto biurtzea da. b) Gizona gorputza da. Beraz, Ebangelioko maitasunak eta askatasunak giza gorputzera eldu bear dabe. Gorputz egin bear dira, giza personearentzat ezer izatekotan. Gorputza esanez, gizonaren izakera istoriko ta lurterra esan gura dogu. Au da, maitasuna eta askatasuna ezin leitekez berez izan barrukoak, espiritualak eta geroko bizitzakoak bakarrik. c) Era berean, gizona gizartekoa da. Gizarteko artuemonak baldintzaten dabe bere izakerea. Emen askapen teologiak, alde batetik, gaurko gizarte kontzientziak eta analisiak eskeinitako ezagupenak darabiltz, eta beste aldetik, Latin-amerikako gizarte egoeraren ikerketa egiten dau. Ikerketa onetan politika, ekonomi eta kultura loturak daben garrantzia eta eragina aparteko eraz, eta errazoiz, argitzen ditu. d) Kristau teologiaren interpretazino edo ulermen barria; aurreko puntua be barria da teologian, eta guztiz garrantzitsua, baina azken baten, geien bat soziologitrik artutako ezagupenak dira; azkenengo puntua, oster, askapen teologiaren alderdirik barri ta berezieta dogu. Gaurko gizarte ikuspegitik, gaurko gizarte kontzientzitik teologia barriro ulertu (edo, kristau fedea barriro ulertu). Kristau mezu osoa askatzaille lez ulertu eta beraz askapen ekintzara zuzendu. Azkenengo puntu biak biurtzen dabe izkera abstrakto, «borondate onekoa» izkera konkreto ta ekintzaille izatera. Au da askapen teologiaren meri-

tua, eta, jakina, or datzaz bere arriskuak be.

### 3. Puntu kritiku batzuk

Orain aipatutako askapen teologiaren estruktura guztiz sendoa da eta duda barik Eleizan bear zan pentsamentu eta ekintza mobimentua. Baina badagoz puntu kritiku eta laban batzuk. Puntuok aipatzean ez dogu inondik askapen teologia epaitzen, ez doguz puntu labanok teologo guztien lepoan jarten. Obeto pentsatu ezkerro, teologo baten edo besteren pentsakera baino, arazo beraren puntu kritikuak dirala esan bear dogu, askapen mobimentuak aurrean aurkitzen dituan puntu labanak. Edozein mobimentuk korapillo bateri erantzuna emon gurean, batez be arazo orokorra danean, korapillo berean eta beretik urtenda aurkitzen ditu olako puntu kritikuak.



a) Leenengo aurkitzen dogun puntu kritikua guztiz da oinarrizkoa: Ze askatasun, ze askapen da gogoan? Itau benetan unibersala, eta esan leike beragaz kristau fedearen azken izategaitik galdetzen dala. Orregaitik itau au ez dagokio askapen teologiari bakarrik, Eleiza guztiari baino, geroago barriro oindino azpimarratuko dogunez. Baina askapen teologiari aparteko eraz, eta zentzu naiko konkretuan, dagokio. Ain zuzen be, kristau mezua ulertzeko oinarrizko idealtzak «askatasuna»

artu dau-eta. Beste edozein idea lez, askatasuna be anbigua da, bere esangurea ez da bat eta bakarra. Askatasuna, nondik eta nora? Askapen teologikoak aparteko eraz, politika, gizarte eta kultura loturetatiko askatasuna azpimarratzen dau. Errazoiz, egoera konkretu orreri erantzun bear dautso euren kristau mezuak eta. Baina aurrean dauken giza errealidadea ez da bakarrik lotura orreek mugatzen dabena. Ez da ori bakarrik gizonaren, eta gizon konkretuaren askapenaren nondik norakoa. Ori balitz, ez legoke kristau mezuaren bearrizirik be, ez legoke Kristoren izena aipatu bearririk be. Askapen teologiak badauki au. Baina teorikoki jakin arren, arazoan bertan estaltzen dan arrisku konkretu da askapen berbea lotura orreetara mugatzea.

b) Esandakoari lotuta dago bigarren puntu au be, eta leenngoaren beste alderdi bat da azken baten: kristau itxaropenaren zabalera. Zer itxaroten dau kristinaiak, edo zer iragarten jako (ze «askatasun», edo ze «salbamen»)? Jakina Alkartasun Barriari Kristo inguruan (aparteko eraz Joanen eta Pauloren teologian) edegiten dan orizonte-itxaropenak Jainkoaren beraren zabalera daukala, askapen teologiak be irakasten dauanez. Baina egi jakin au estututzeko arrisku objektiboa badago egikeran.

c) Gizarte loturak gizonagan esentzialak izan arren, ez da gizona gizarte utsa, ez da amaitzen gizarte artuemonetan, bere erantzukizun bakarra dauka, eta orregaitik bere gizarte erantzukizuna be azken baten gizonaren erantzukizun partikularrean oinarritzen da. Gizarteko loturak aldatu eta orretan askatasun bidea urratu arren, orain eta beti be erabagi pertsonalak artu bear dira (artuemon barrien artean izan arren).

d) Kristau mezua barriro ulertzearen entusiasmuak eroan leike mezu orren barruko alderdi batzuk illuntzera. Esate baterako, sakramentuen balioa edo eleiz-agintarien berarizko aalmena. Emen be, jakina, barriz ulertzea berez errazoizko eta bearezkoa izan arren, eleiz-kontzientzi ori illuntzeak ez dakar ezer onik azken baten askapen bide orretan. Sakramentuak magikoak barik, egizko alkartze senalcak diranaren ideak ez dau sakramentuen balioa illundu bear (edozein adibide ipinteko).

e) Gizarte analisi egikeran eta dagokion ekintza sorkeran, badago «besteen» lepoan erru ta zergaiti guztia ezarteko arriskua. Analisi benetan errealistak gizarte konkretuak emen eta orain ze aalmen eta eskakizun dituan ikertuko dau. Oneri lotuta datza beste au: kontzientzi kritikua sortzeak egitez kontzientzi «zoritxarrekoa» (eta zoritxarrekoa utsik) ekarri leike eta, beraz, «besteen» kontrako iraultzan askabide osoa jartea. Au jazo leiteke iñoz lortu ezin leitekezan ondasunen irrirtsa eta bekaizkeria eta besteen errua ta gorrotoa biztueraziz. Erroma'ko bigarren agiriak errazoiz azpimarratzen dau askatasun eta gizabidetzat aziera bidea (81, 92, 99), askapen teologiak be ondo dakianez. Benetako aziera baiña ez da artifiziaia, norberaren aalmen desarroloa baiño, aalmen konkretuak.

#### 4. Erromako irakaspén biak

Leenengo ta bein, ez zan egoki izan munduaren miseri-egoeraren aurtean, eta askapen teologiaren 15 urte inguruko desarroloaren ostean, Erromako Kongregazio orren berbea geien baten ezezkorra izatea: bere leenengo berbea desbideratze eta arriskuak azpimarratzea izan zan. Eta, gero, alderdi konkretuetan be ulermena falta zan. Esate baterako, klase-borroka auzian. Klase borroka idea erabilten dabe askapen teologo batzuk. Baina Marx'ek bere metafisikagaz lotuta daribillanaren errazoaia ez da naiko idea ori ukatzeko. Auzia au da: gizarte egoerea idea orren bidez zeatz eta egiz ulertzen dan ala ez. Ganera, gizonak ezeze, ideak eta itzak be istori aldakuntza dabe, eta askapen teologoen textoetan ez dauka leengo gizaldiko esangura berbera euki bearririk. Jakina kristau teologiak idea ori erabiliz gizarte gorrotoa edo gogorkeria sortu gura ez dituan. Nire ustez, idea orrek ez ditu egoki artuemon guztiak, euren ezbardintasunean, argitzen, baina artuemon konkreto batzuk azaltzeko beste barik erabilgarria da.

Bigarren dokumentua positiboa da: askapen teologiak argitu gura dauan giza arazo bera dau gogoan. Eta dinozan gauzak sendoak eta pentsagarriak dira. Baina oizko eliz-gizarte-dotrina tradizionala da. Dokumentuak bigarren oarrean aipatzen dituan



eliz-agirietatik aurrera ez diño gauza barririk. Askapen teologitiek be-reizten daben puntu biak oneek dira: gaurko gizarte egoeraren analisi eza, eta teologiaren ulermen barriaren eza. Olan, esate baterako, Eleizearen maitasuna batez be baztertuentzat dala dinoanean, baina ez dala partidista eta istillularia (68 zenb.). Egia da Ebangelioak ez dauala istillurik billatzen, baina gaurko gizartearen analisiak erakusten dau, parte artuz, nai ta naiez sortzen dala istillu ob-

jetiboa sarritan. Edo gizarte artuemonak «zuzenak» izan bear dabela diñoanean: zer esan gura dau orrek, esate baterako, askapen teologia sortu dan errialdeetan?

Baina aparteko eraz azpimarratzen dau dokumentu onek bein ta barriro sustraiko txarra dan «pekatutik» askatzen dauala Ebangelioaren indarrak (23, 37, 47, 63, 99 zenb.). Eta pekatua leenengo ta bein Jaungoikoaren desprezioa dala (40 zen.). Jakina au berezkoa dana kristau fedearantz, baina pekatua zeatzago zer dan eta Jaungoikoaren desprezio ori noz eta zelan jazoten

dan arakatu eta barriro ulertu bear litzake. Ez da au dokumentu oneri bakarrik egotzi bear jakon utsa; danoi dagokigu arazo sakon au, baina Erromako agiriak, askapen teologiaren aurrean olako ideak azpimarratzean, pentsa lei oso sendo ta zezatz dakiala zetan dan eta ez dan.

### 5. Azken oar orokorrak

Jakina Erromak eskubide dauana teologi arazo onetan parte artzeko eta ofizialki aparteko oarrak ezarteko. Eta bigarren dokumentu onek, askapen teologo batzuk bearbada naiko azpimarratzen ez dabezan egi batzuk gogoratuz batera, askapen teologiaren arazoa beretzat artzen dau eta teologi orren egokitasun orokorra onartzen (edo beintzat libre isten dau).

Emen be bete da ezagupen-soziologiaren legea: urrinetik eta beste bizikuntza batetik egindako gogoketak ez dabe benetan errealdadearen sustraia arrapatzen. Au egia da, baina lege ori be ez da guztiz gaudituz ezina. Ostantzean alperriko litzake edo zetarikoko alkarrizketa, persona bakotxak bere bizikuntza dau ta. Baina ez da guztiz gaudituz ezina, lege orretaz be konturatu egiten gara, ta beraz, alkarrizketaren bidez errealdadearen izatea obeto ulertzeko bideak urratu.

Beste alde batetik, askapen teologia bera be lege orren azpian dago: momentuaren preminak alderdi batzuk bakarrik ikusi-erazo egiten ditu, eta beste batzuk aaztu edo illundu. Izan leiteke emen azento dialektikoaren eskubidea: Arazo oneri erantzuteko alderdi batzuk azpimarratzeko eskubidea. Emen be baina alkarrizketaren bidez konturatu geintekoz, eta beintzat alderdi orreek ez egi oso ta bakartzat eta momentu guztietarako baiez-tatu. Au da, alkarrizketaren bidez egi osoagoa zaintzen dogu, osotasun orretan alderdi batek edo bestek momentu bakotxean dauan garrantzi guztiz apartekoa galdu barik.

Arazo onetan, barriro azpimarratu bear dogu, munduko miseri egoerea da azken baten garrantzitsua. Orreri emon bear jako ziur urtenbidea. An edo emen osotu bearra izan arren, askapen teologiak gure esker ona merezi dau, gizaldi eta Eleizea-



ren bearrizan onetan urtenbidea aurkitzen alegindu dalako. Bere kontra, eta bere alde be bai, edozetariko interes politiku eta ekonomikuak izan leitekez, kristau mezua manipula nai dabena. Ez dabe orregaitik ixildu edo makurtu bear ez askapen teologiak ez Eleizeak.

Azkenez, leen aipatu dogun itauna geratzen da dindilizka: zer da lortu gura dan «askatasuna»? Ez dautsagu itaun au orain askapen teologiari egiten. Eleizearen arazoa da. Azkenengo aldiotako agiritan sarri agertzen da askatasuna. Askatasun konkretok izaten dira: erlegino askatasuna, irakaskintza askatasuna eta abar. Baina atzean geratzen da beste askatasun bat, eta askatasun onen atalak eta bideak baino ez dira askatasun partikular areek. Si Paulok erabili eban askatasun idea kristautasunaren izatea azaltzeko. Zuzenean, «Legearen» burrukan erabili eban batez be; baina, batera, atzean askatasun aundiaren bizikuntza be badago Paulogan, bere idaztiak beste berba batzuekaz agertzen daben lez. Gaurko gizarteak giza betetasuna azaltzeko «askatasun» itza dau maite. Gaurko mundu-bizikuntza ain zuzen be baldintza, zama ta itotasuna dalako, berba onetan susmatzen dau gaurko gizonak bere azken guraria. Kristau mezuan beste berba batzuk be badagoz: barri ona, salbamera, grazia, Jainko- seme-alabatza, bizi barria... Oneek eta «askatasun» berbeak errealdade bardinera zuzentzen dabe gure gogoa. Azken mugako (edo mugatik kanporako) idea da, eta giza itxaropenaren beste izen bat.

Baina auxe iragarri bear dau Eleizeak, eta ez gerorako errealdade lez bakarrik, orain be dastatzen emoten dan errealdade lez baino. Zelan? Non? Berba au erabilliz zentzubakokeririk egin gura ez bada, zelan iragarri askatzailletzat kristau fedea? Zelan egiztatu, istori barruan egin leikean einen, askatasunera deituak garala, eta askatasun orren asikera emon jakula? «Zer sinistu» eta «zer egin» bear dan, kristau fedearen barruan, itaun oneen orizontean zeaztu bear da. Bitartean, baina, miseri-esklabutzan bizi diran lurraldeak askatuak izan bear dabela (naiz ta aurrerakuntza materiala egitez giza-betetasuna beti izan ez) argi be argi dago.

*Luis Arostegi*